




ISEI - IVEI

C6. ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PARTAIDETZA





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

Edizioa: 2013ko abendua

© ISEI-IVEI-k argitaratua

ISEI-IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Sarrera	4
C6.1 taula eta grafikoa: Hezkuntza edo prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.	7
C6.2 taula: Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan.	8
C6.3. taula eta grafikoa: Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2011 urtea.	9
C6.4 taula: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera.	10
C6.5 taula: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2011. urtea.	12



INKESTAREN AURREKO LAU ASTEETAN PRESTAKUNTZA EDO HEZKUNTZA-JARDUERETAN PARTE HARTU DUEN 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA

Europar Batasunaren helburua 2020. urterako: Europar Batasunean prestakuntza iraunkorreko partaidetza-maila batez beste lan egiteko adinean (25-64 urte) dagoen biztanleriaren % 15era gutxienez heltzea.

Bizitzako aldi jakin bati lotutako –gehienetan gaztaroari mugatutako– prestakuntzaren kontzeptuak lekua utzi dio bizitza osoan zehar gauzatzen den prestakuntzaren kontzeptu zabalagoari.

Europako Batzordeak 2000. urtetik aurrera helburutzat hartu zuen ikaskuntza iraunkorreko partaidetza handitzea. Honela definitu zuen ikaskuntza iraunkorra: “bizitzan zehar norberaren, hiritarren, gizartearen eta enpleguaren ikuspuntutik ezagupenak hobetzeko asmoz gauzatzen den edozein ikaskuntza-jarduera” (Batzordearen jakinarazpena: “Etengabeko ikaskuntzako europar gune bat errealitate bihurtu”, 2001).

Definizio horren arabera, Europako herritarrek bizitza osoan aurre egin behar izaten diote euren ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak eguneratzeko erronkari, ahalik eta norberaren garapen maila altuena lortu ahal izateko eta lan-merkatuan ahalik eta prestakuntzarik onenarekin mantendu ahal izateko.

Gaur egungo krisi-egoeran, etengabeko prestakuntzak lana duten pertsoneri ezagupen eta trebetasun berriak, eta enplegurako baliagarriak, eskaintzen dizkie. Lanik ez duten pertsonentzat prestakuntza ezinbestekoa da lanean berriro hasteko, lanerako gaitzen eta birziklatzen dituelako eta euren ezagupen maila hobetzen duelako. Azken batean, herrialdeetako produktibitatea eta giza kapitala handitzen ditu, eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-beharrei erantzuten die.

Ikaskuntza-eredu hori, Batzordearen beraren iritziz, bat dator Europako gizarte-ereduarekin eta, horrenbestez, 2010erako asmo handiko helburua ezarri zen: 25-64 urteko biztanleriaren %12,5ek gutxienez ikaskuntza iraunkorreko jardueretan parte har dezan lortzea.

Helburu hori 2010-2020 hamarkadarako mantendu da, eta tasa % 15era igo da. Hala ere, Europako Batzordeak berak honela dio *Monitor 2012*an: "persona helduen partaidetza hezkuntza iraunkorrean geldituta dago... eta 2020rako erreferentzia-puntura heltzea oso errealitate urruna da. Proiektu berriak, hezkuntza-baliabide irekiak, kasu, lagungarriak izan litezke biztanleria helduak ikaskuntza informalerako duen ahalmena askatzeko".

Batzordeak adierazle hau finkatu zuenetik zenbait aldaketa izan dira. Gaur egun, inkesta egin aurreko lau asteetan gauzatu diren mota guztietako ikastaroak edo tailerrak hartzen dira prestakuntzatzat, hezkuntza arautukoak, ez-arautukoak edo



informalak direlarik ere. Datuak lau hiruhilekoetako ehunekoan urteko batez bestekoa adierazten du.

2011n Europar Batasunean, 27 herrialdeen multzoan 25-64 urteko biztanleen % 8,9 mota bateko edo besteko ikasketak edo prestakuntza ikastaroak egiten ari ziren. Bilakaera aztertzen badugu, denboran oso datu egonkorra dela ikus dezakegu, eta, ondorioz, 2010ean ez da bete aurretiaz finkatutako % 12,5era heltzeko helburua, eta berariazko neurriak hartu ezean, nekez helduko da 2020rako helburutzat finkatu den % 15era. Izan ere, 2005. urtetik hona atzerakada motela izan bada ere, oro har beheranzko kurba dela esan dezakegu. Ideia horren aldeko beste argudio bat ere badago: 2011n EBko herrialdeetako 15etan ehunekoak % 10 baino baxuagoak ziren. Herrialdeen arteko aldeak nabariak dira, Bulgarian (% 1,2) edo Errumanian (% 1,6) tasa % 2 baino baxuagoa baita, eta, aldi berean, Danimarkan (% 32,3), Suedian (% 25,0) edo Finlandian (% 23,8), % 20 baino handiagoa baita.

Euskadi, 2005eko igoeraz geroztik urtetik urtera hazten joan da, baina atzerakada bat izan du 2011n tasa % 12,9ra jaitsi arte. Hala ere, 2010ean lortu beharreko helburua % 12,5 zenez, Euskadik 2005. urtetik gainditua zuen tasa hori. Beste alde batetik, datuak aldi horretan duen beheranzko egonkortasuna kontuan harturik, pentsa daiteke, berariazko neurriak hartu ezean, zaila izango dela datua hobetzea eta 2020rako proposatutako % 15eko helburua betetzea.

Datuaren egonkortasunaren adibidea Espainiaren kasua izan daiteke, 2005etik 2009ra tasa (% 10,4) ez baita aldatu. Lau hamarren hazi ondoren, 2011n ia % 11ra heldu da. Autonomia erkidegoei dagokienez, 2011n ehunekorik altuenak honako hauek ziren: Nafarroa (% 13,6), Ceuta eta Melilla (% 13,5), Euskadi (% 12,9), eta gero Madril eta Aragoi (% 12,5). Ehunekorik apalenak Kantabriak (% 8,8) eta Kataluniak (% 9,1) zuten.

2011n Europar Batasuneko batez bestekoa (% 8,9), Espainiako batez bestekoa baino apalagoa da, eta Euskadikoa baino 4 puntu baxuagoa.

Sexuaren aldagaia aztertzen badugu, 2011n, Europar Batasuneko herrialde batzuetan emakumezkoen partaidetzaren ehunekoa gizonezkoena baino handiagoa dela ikus daiteke. Sexuen arteko partaidetza-alderik handienak, emakumezkoen alde, Suedian (13,5 puntu), Danimarkan (13,4 puntu) eta Finlandian (7,8 puntu) izan dira, prestakuntza iraunkorreko tasarik handiena duten herrialdeetan alegia. Gizonezkoen partaidetzaren ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa Alemanian, Grezian, Luxenburgo eta Rumanian bakarrik izan da. Sexuen arteko alderik txikienak Bulgarian (0,0 puntu), Errumanian (0,1 puntu), Hungarian (0,3 puntu) eta Holandan (0,4 puntu) izan dira.

Autonomia erkidegoei dagokienez, emakumezkoen partaidetza prestakuntza-jardueretan gizonezkoena baino handiagoa izan da erkidego guztietan Murtzian izan ezik. Erkidego horretan gizonezkoen eta emakumezkoen partaidetzaren ehunekoak nahiko berdindurik dago.

Euskadiren kasuan sexuaren aldetiko aldea 4,2 puntukoa da, eta Nafarroakoarekin batera (3,5 puntu) alderik handiena duten erkidegoak dira, hurrengoa Errioxa delarik.



C6

Etengabeko ikaskuntzako partaidetza

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



2011n sexuaren aldetiko alderik txikienak izan dituzten erkidegoak Kantabria (0,5 puntu), Extremadura (0,6 puntu) eta Gaztela-Mantxa (0,8 puntu) dira. Euskadin emakumezkoek 2011n prestakuntza-jardueretako partaidetza dela eta % 15eko europar helburua lortu dute, Nafarroan eta Ceutan eta Melillan bezala.




C6.1 taula eta grafikoa:

Hezkuntza edo prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.

Urtea	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea ¹
2000	4,9	5,4	4,4	1,0
2001	4,9	5,7	4,1	1,6
2002	6,1	7,1	5,1	2,0
2003	6,2	7,1	5,3	1,8
2004	6,6	7,9	5,2	2,7
2005	12,7	14,6	10,7	3,9
2006	12,5	13,7	11,2	2,5
2007	13,2	14,4	12,0	2,4
2008	13,5	15,0	12,0	3,0
2009	13,3	15,3	11,3	4,0
2010	13,0	14,8	11,2	3,6
2011	12,9	15,0	10,8	4,2

¹Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.

Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005). Espainiako Estatistika Institutua (INE).



C6.2 taula:

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera¹ autonomia erkidegoetan².

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Espainia	4,5	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5	10,4	10,4	10,4	10,4	10,8	10,8
Andaluzia	4,7	4,5	4,2	4,4	4,4	9,5	9,6	9,7	9,5	9,5	10,2	9,9
Aragoi	4,0	3,4	3,5	4,1	4,0	11,3	11,8	11,5	11,0	10,8	11,7	12,5
Asturias	3,6	3,4	3,4	4,5	3,7	8,9	8,1	8,5	9,9	8,9	8,9	9,4
Balear Uharteak	3,5	3,5	4,1	4,5	5,4	9,5	10,6	9,3	8,6	9,1	9,8	10,1
Kanariak	5,6	6,2	6,4	6,4	6,5	11,6	10,6	11,0	10,8	11,0	11,6	10,6
Kantabria	3,1	2,1	2,3	2,4	2,6	9,7	8,6	7,6	7,9	7,3	8,4	8,8
Gaztela eta Leon	6,1	5,4	6,0	6,2	6,4	11,7	11,0	10,7	11,1	10,1	11,2	11,4
Gaztela-Mantxa	4,9	4,5	4,7	5,0	4,7	8,6	8,8	9,7	9,4	9,7	10,4	9,7
Katalunia	3,1	3,2	2,8	3,2	2,9	10,0	9,6	9,0	8,8	9,8	9,9	9,1
Ceuta eta Melilla	8,0	6,2	5,0	5,9	5,0	12,4	11,9	10,6	11,7	12,3	11,3	13,5
Euskadi	4,9	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,4	13,2	13,5	13,3	13,0	12,9
Extremadura	2,9	3,2	3,0	3,7	3,3	9,5	9,0	12,4	10,9	10,1	10,2	10,9
Galizia	3,8	4,4	4,9	5,1	6,0	10,5	11,3	11,1	11,3	11,5	10,6	10,9
Errioxa	1,9	2,4	2,3	2,0	2,0	10,4	9,0	9,3	9,4	9,9	11,1	10,6
Madril (Erk.)	3,9	3,6	3,5	4,0	3,6	12,2	11,6	11,3	11,7	11,1	11,4	12,5
Murtzia	4,6	5,0	4,8	5,5	5,6	8,7	9,3	10,1	10,0	10,3	10,6	10,4
Nafarroa	6,0	6,5	6,4	6,1	3,9	12,1	12,0	13,3	12,6	12,9	13,2	13,6
Valentziako Erk.	6,8	6,8	6,3	6,6	6,6	10,5	10,5	10,5	11,1	10,9	11,6	11,5

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005). Espainiako Estatistika Institutua (INE).


¹ Eurostatek finkatutako metodologiaz kalkulatu dira, hiru hilabeteetako datuen urteko batez bestekoetan oinarriturik. 2005etik aurrera irakaste-jardueren estaldura handiagoa dagoenez, aurreko urteetako datuekiko konparagarritasuna falta da.

² Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



C6.2 grafikoa:

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. 2006 eta 2011 urteak.



Handienetik txikienera ordenatua, 2011. urtea erreferentziatzat harturik.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005). Espainiako Estatistika Institutua (INE).




C6.3. taula eta grafikoa

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa³ autonomia erkidegoetan⁴. Orokorra eta sexuaren arabera. 2011 urtea.

	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea ¹
Espainia	10,8	11,6	10,0	1,6
Andaluzia	9,9	10,4	9,3	1,1
Aragoi	12,5	13,2	11,8	1,4
Asturias	9,4	10,0	8,8	1,2
Balear Uharteak	10,1	10,6	9,6	1,0
Kanariak	10,6	11,5	9,6	1,9
Kantabria	8,8	9,1	8,6	0,5
Gaztela eta Leon	11,4	12,7	10,2	2,5
Gaztela-Mantxa	9,7	10,1	9,3	0,8
Katalunia	9,1	10,2	8,0	2,2
Ceuta eta Melilla	13,5	15,1	12,0	3,1
Euskadi	12,9	15,0	10,8	4,2
Extremadura	10,9	11,2	10,6	0,6
Galizia	10,9	11,7	10,0	1,7
Errioxa	10,6	12,1	9,1	3,0
Madril (Erk.)	12,5	13,2	11,8	1,4
Murtzia	10,4	10,0	10,7	-0,7
Nafarroa	13,6	15,4	11,9	3,5
Valentziako Erk.	11,5	12,0	11,0	1,0

¹Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.



Handienetik txikienera "Sexu biak" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005). Espainiako Estatistika Institutua (INE).

³ Eurostateg finkatutako metodologiaz kalkulatu dira, hiru hilabeteetako datuen urteko batez bestekoetan oinarriturik. 2005etik aurrera irakaste-jardueren estaldura handiagoa dagoenez, aurreko urteetako datuekiko konparagarritasuna falta da.

⁴ Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



C6.4 taula:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
UE (27 herrialde)	7,1 (e)	7,1 (e)	7,2	8,5 (b)	9,2	9,6	9,5	9,3	9,4	9,3	9,1	8,9
UE (25 herrialde)	7,6 (e)	7,5 (e)	7,6	8,9 (b)	9,7	10,1	10,0	9,8	9,9	9,8	9,6	9,4
UE (15 herrialde)	8,1 (e)	8,0 (e)	8,1	9,8 (b)	10,5	11,1	11,0	10,7	10,8	10,7	10,4	10,1
Alemania	5,2	5,2	5,8	6,0 (i)	7,4 (i)	7,7	7,5	7,8	7,9	7,8	7,7	7,8
Austria	8,3	8,2	7,5	8,6 (b)	11,6 (i)	12,9	13,1	12,8	13,2	13,8	13,7	13,4
Belgika	6,2 (i)	6,4	6,0	7,0	8,6 (b)	8,3	7,5	7,2	6,8	6,8	7,2	7,1
Bulgaria	:	1,4	1,2	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3	1,4	1,4	1,2	1,2
Zipre	3,1	3,4	3,7	7,9 (b)	9,3	5,9 (b)	7,1	8,4	8,5	7,8	7,7	7,5
Danimarka	19,4 (b)	18,4	18,0	24,2 (b)	25,6	27,4	29,2	29,0	29,9	31,2	32,5	32,3
Eslovakia	:	:	8,5	3,7 (b)	4,3	4,6	4,1	3,9	3,3	2,8	2,8	3,9
Eslovenia	:	7,3	8,4	13,3 (b)	16,2	15,3	15,0	14,8	13,9	14,6	16,2	15,9
Espainia	4,5 (b)	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5 (b)	10,4	10,4	10,4	10,4	10,8	10,8
Estonia	6,5 (b)	5,4	5,4	6,7	6,4	5,9	6,5	7,0	9,8	10,5	10,9	12,0
Euskadi*	4,9	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,4	13,2	13,5	13,3	13,0	12,9
Finlandia	17,5 (b)	17,2	17,3	22,4 (b)	22,8	22,5	23,1	23,4	23,1	22,1	23,0	23,8
Frantzia	2,8	2,7	2,7	6,8 (b)	6,0	5,9	6,4	6,1	6,0	5,7	5,0	5,5
Grezia	1,0	1,2	1,1	2,6 (b)	1,8	1,9	1,9	2,1	2,9	3,3	3,0	2,4
Hungaria	2,9	2,7	2,9	4,5 (b)	4,0	3,9	3,8	3,6	3,1	2,7	2,8	2,7
Irlanda	:	:	5,5	5,9 (b)	6,1	7,4	7,3	7,6	7,1	6,3	6,7	6,8
Italia	4,8 (b)	4,5	4,4	4,5	6,3 (b)	5,8	6,1	6,2	6,3	6,0	6,2	5,7
Letonia	:	:	7,3	7,8	8,4	7,9	6,9	7,1	6,8	5,3	5,0	5,0
Lituania	2,8	3,5	3,0 (b)	3,8	5,9 (b)	6,0	4,9	5,3	4,9	4,5	4,0	5,9
Luxenburgo	4,8	5,3	7,7	6,5 (b)	9,8	8,5	8,2	7,0	8,5	13,4 (b)	13,4	13,6
Malta	4,5	4,6	4,4	4,2	4,3 (b)	5,3	5,4	6,0	6,3	6,1	6,2	6,6
Herbehereak	15,5	15,9	15,8	16,4 (b)	16,4	15,9	15,6	16,6	17,0	17,0	16,6 (b)	16,7
Polonia	:	4,3	4,2	4,4	5,0 (b)	4,9	4,7	5,1	4,7	4,7	5,3	4,5
Portugal	3,4	3,3	2,9	3,2	4,3 (b)	4,1	4,2	4,4	5,3	6,5	5,8	11,6 (b)
Erresuma Batua	20,5 (b)	20,9	21,3	27,2 (b)	29,0	27,6	26,7	20,0 (b)	19,9	20,1	19,4	15,8 (p)
Txekiar Errepublikak	:	:	5,6	5,1 (b)	5,8	5,6	5,6 (i)	5,7	7,8	6,8	7,5	11,4 (b)
Errumania	0,9	1,0	1,0	1,1	1,5 (b)	1,6	1,3	1,3	1,5	1,5	1,3	1,6
Suedia	21,6	17,5 (b)	18,4	:	:	17,4 (p)	18,4 (p)	18,6 (p)	22,2 (b)	22,2 (p)	24,5	25,0

(:) Datua falta da. (e) Balio kalkulatua. (b) Segidaren haustura. (p) Behin behineko datua. (i) Ikus testu argigarria. http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_SDDS/Annexes/lfsi_edu_a_esms_an1.pdf.


*Euskadirako INEko datuak.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



C6.4: grafikoa

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. 2006. eta 2011. urteak.



Handienetik txikienera "2011.urtea" irizpidearen arabera ordenatua".

*Euskadirako INEko datuak.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



C6.5 taula:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2011. urtea.


	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea ¹
UE (27 herrialde)	8,9	9,6	8,2	1,4
UE (25 herrialde)	9,4	10,1	8,6	1,5
UE (15 herrialde)	10,1	10,8	9,3	1,5
Alemania	7,8	7,7	7,9	-0,2
Austria	13,4	14,5	12,2	2,3
Belgika	7,1	7,4	6,7	0,7
Bulgaria	1,2	1,2	1,2	0,0
Zipre	7,5	7,8	7,2	0,6
Danimarka	32,3	39,0	25,6	13,4
Eslovakia	3,9	4,4	3,4	1,0
Eslovenia	15,9	18,2	13,7	4,5
Espainia	10,8	11,6	10,0	1,6
Estonia	12,0	14,5	9,2	5,3
Euskadi*	12,9	15,0	10,8	4,2
Finlandia	23,8	27,7	19,9	7,8
Frantzia	5,5	5,9	5,2	0,7
Grezia	2,4	2,3	2,6	-0,3
Herbehereak	16,7	16,9	16,5	0,4
Hungaria	2,7	2,9	2,6	0,3
Irlanda	6,8	7,2	6,3	0,9
Italia	5,7	6,0	5,3	0,7
Letonia	5,0	6,1	3,8	2,3
Lituania	5,9	7,1	4,6	2,5
Luxenburgo	13,6	13,0	14,2	-1,2
Malta	6,6	6,9	6,3	0,6
Polonia	4,5	5,0	4,0	1,0
Portugal	11,6	12,1	11,1	1,0
Erresuma Batua	15,8	17,5	14,0	3,5
Txekiar Errepublika	11,4	11,6	11,2	0,4
Errumania	1,6	1,5	1,6	-0,1
Suedia	25,0	31,9	18,4	13,5

¹Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kendurarekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.



C6.5 grafikoa:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera 2011. urtea.



Handienetik txikienera "Sexu biak" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.